

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2700

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2017ko Ikerkuntzako Euskadi Saria Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitatean esleitzen duena.*

Hezkuntzako sailburuaren abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak, Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz, eta sariaren deia egiten Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitatean.

Hezkuntzako sailburuaren 2018ko apirilaren 19ko Aginduak, 2017ko Ikerkuntzako Euskadi Sari-rako epaimahaia izendatzen du, Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitatean.

Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen duen abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuaren esleitzeko prozedurari buruzko 9. artikulua betez,

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Enrique Echeburua Odriozola irakasleari esleitzea 2017ko Ikerkuntzako Euskadi Saria, Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitatean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.